



DIRU-SARRERAK

Dohaintzen, Herentzien eta Legatuen Guztizko Zenbatekoa

Euskadiko Futbol Federakundeak ez du dohaintzarik, jaraunspenik edo legaturik jasotzen bere alde.

Nazioarteko Lehiaketetan Parte Hartzeagatik Jasotako Zenbatekoa


Euskadiko Futbol Federakundeak ez du inolako zenbatekorik jaso nazioarteko lehiaketetan parte hartzeagatik edo egituretako kide izateagatik.

Kirol-Lehiaketa/Jardueraren bidez lortutako Diru-Sarrerak

Euskadiko Futbol Federakundeak kirol-lehiaketak antolatuz lortu dituen diru-sarrerak guztira 380.108,65€-koak dira. Hau da, diru-sarrera guztien % 10,18. Nazioarteko lehiaketetan parte hartzeari dagokionez, Euskadiko Futbol Federakundeak ez du zenbatekorik jasotzen.

Adierazleak

- Aurrekontu orokorreko diru-laguntzak %88,92-ekoak dira.
- Kuota guztien %0,23-eko diru-sarrerak.
- Babesletza osoaren diru-sarreraren %0,41.





GASTUAK

Sustapen-Kanpainetako Gastuak

Euskadiko Futbol Federakundeak ez du inolako zenbatekorik bideratu 2022ean sustapen-kanpainetara.


Ordaintzeko Batez Besteko Epea

Hauxe da Euskadiko Futbol Federazioak azken urteetan ordaindu duen batez besteko epea:

- **2022:** 38,57 egun
- **2021:** 20,31 egun

Adierazlea

- Langile gastuak %8,07.





ZORPETZEA

Euskadiko Futbol Federakundearen Zorpetzea:

Administrazio Publikoekiko Zorra:

- Ogasun Publikoarekiko zorra: 0 €
- Gizarte Segurantzarekiko zorrak: 0 €

Banku edo entitate pribatuekiko zorrak:

Azken 5 urteetan, Euskadiko Federakundeak ez du zorpetzerik, ez krediturik finantza-erakundeekin, ez beste erakunde pribatu batzuekin.

Gainera, Euskadiko Futbol Federakundeak administrazio publikoekin (Foru Ogasuna, Gizarte Segurantza eta Estatuko Zerga Agentzia) zorrik ez du.

